

DB

Behar Hitzza
Leioa



Behargintza Leioa

Ekintza eta proiektu ugariko urtea izan da 2015.

Gure aholkularitzarekin, **49 enpresa** abian jartzen lagundu dugu.

41 prestakuntza ikastaro eman ditugu, espero zuen interesekoak izana.

Ikastaro horietan, **592 pertsonak** parte hartu dute.

33 lan-eskaintza tramitatu dugu.

Euren enplegarritasuna hobetu nahi zuten **567 pertsonari** eman diegu arreta.

Enpresa-prestakuntzako **25 jardunaldi** antolatu ditugu.

Baina hori ez da ezer izan. 2016 proiektuz, ekintzez, ikastaroz, eta jakina, lan eskaintzez lepo dator.

Hori da urte berrirako dugun desioa. Eta zurea?

2015

Behargintza Leioa Enplegu eta Tokiko Garapenerako Zentroa

Mendibil kalea, 3 . 48940 - Leioa
Tfnoa.: 94 400 41 95 | Faxe: 94 402 25 41
www.behargintzaleioa.net
behargintza@leioa.net

 @LeioaBG  Leioako Behargintza

SAILAK:

Orientazioa
behargintza.orientazioa@leioa.net

Prestakuntza
behargintza.enplegua@leioa.net

Enpresa
behargintza.enpresa@leioa.net

Ekintzailtza
behargintza.ekintzaile@leioa.net

Berrikuntzak Bizkaiko Enpresetan

[barrixe-Berrikuntza Behatokiaren](#) bidez eginiko **Norabidea 2015** azterketak dio **enpresa berritzaileen** ia erdiak (%43,6k) sarritan kolaboratzen dutela beste konpainia batzuekin -bai beren sektorekoekin eta baita ere beste sektore batzuetakoekin.

Batez ere produktu edo zerbitzu berrien edo hobetuen diseinuan eta merkatu berrien irekieran oinarritutako **berrikuntzak** garatzeko edota produktu edo zerbitzu berrien kontzeptu eta ideiak sortu eta garatzeko. Kontsultatutako enpresen %66,6k uste du **lankidetz**a hori baliagarria dela.

Norabidea 2015 txostenak beste ondorio bat ere atera du: **enpresen %68,7k arrakasta bezala ikusten dute berritzeko hartu duten erabakia**. Portzentaje hori hazi egin da 2014koarekin alderatuta (%61), eta horrek esan nahi du berritzen duten enpresak seguruago daudela garatzen ari diren prozesuari dagokionez.

Enpresek diote gaur egungo testuinguru ekonomikoak eragina duela beren jarduera berritzailean, eta horietatik bi herenek beren **berrikuntzako helburuak** murriztu badituzte ere, etorkizunari begira, **berrikuntzako inbertsio** ahaleginaren arloan gehienek egonkortasunaren aldeko apustua egin dute; halere, bada joera positibo bat, %27,3 eta %15,8 bitartekoa, zeinetan produktu edo zerbitzu berriek, marketinak eta merkaturatzeak protagonismo handiagoa baitute

Norabidea 2015-ek, Lurralde Historikoko enpresek beren negozio-planetan berrikuntzari ematen dioten garrantzia neurtzen duen azterlanak, baita ere dio **Bizkaiko enpresen %49,4k jarduera berritzailearen bat egin duela azken lau urteetan**. Gainera, inkesta honi esker egiten den Berrikuntzaren Intentsitatearen Indizeak (jarduera berritzailearen sistematizazio gradua neurtzen duenak) adierazten du enpresa berritzaileen %29,6k berrikuntza maila handia edo oso handia duela. Portzentaje hori iazkoa baino apur bat handiagoa da (%28,4), eta kontuan hartzekoa da enpresen %28,9k finantzaketa publikoa jaso duela.

Bestalde, jarduera berritzailerik egin ez duten enpresek ez dute berritu, sinetsirik daudelako ez dela beharrezkoa, garestiegia dela eta ez duela errentagarritasun handirik ematen. Era berean, azterlan honek aukera ematen du **enpresa ez berritzaileak berrikuntzarako** duten joeraren arabera sailkatzeko, eta hor ikus daiteke %34k joera handia duela berritzen hasteko.

Hona hemen **Norabidea 2015** azterlanean analizatu diren alderdi batzuk:

- Bizkaiko enpresen jarduera berritzailea
- Berrikuntza intentsitatearen indizea
- Enpresetako berrikuntzaren ezaugarriak
- Enpresa ez berritzaileak, nolakoak diren eta zergatik ez duten berritzen.
- Kultura berritzailea: giza kapitala, ezagutzaren kudeaketa eta berrikuntza babesteko metodoak.
- Lankidetz a da berrikuntzarako bidea
- Marketin eta merkaturatze arloetako berrikuntzak

URL: <http://www.barrixe.com/index.php/eu/barrixen-txostenak-berrikuntza-bizkaian/berrikuntzari-buruzko-merkatu-ikerketan-norabidea/3778-norabidea-2015-la-innovacion-en-las-empresas-de-bizkaia>

UDAL MINTEGIAREN DEIALDI BERRIA

Leioako Udalak enpresa mintegia dauka eta horren helburua da proiektu berritzaile eta teknologikoei laguntza ematea, baita enpresa berriak sustatzea ere horiei kokaleku bat eskainiz.

Gaur egun, udalaren enpresa-mintegian honako enpresa hauek ari dira lanean:

- Agla 4D: agla4d.com
- Miss Tailor: misstailor.es
- Proinac: proinac.net
- Cenergite Bizkaia: cenergite.com
- Ikerketa: ikerketa.com
- Vestuario corporativo profesional: www.vestuariocorporativo.com

Leku librea dagoenez, epe laburrean, horiek esleitzeko deialdia irekiko da.

Egonaldia, hasieran, bi urtekoa izango da, erosketa aukerarik ematen ez duen alokairu-araubidean. Hala ere, enpresa adjudikaziodunak, gehienez urtebete luzatzeko eskatu ahalko du prestakuntza beharrik baldin badauka, edo epe horretan, negozioak arrakasta izateko aukerak nabarmen areagotzeko aukerarik ikusten bada.



Instalazioak ezagutzeko interesik izanez gero, hitzordua eska daiteke helbide honeta behargintza.ekintzaile@leioa.net



Prestakuntza

Zertan da prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua?

Prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratuaren xedea langileen lanbide-prestakuntza da, enpresa batean ordaindutako lan-jarduera eta enplegurako prestakuntza profesionaleko sistemaren (**PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIA**) edo hezkuntza-sistemaren barruan (**LANBIDE HEZIKETA**) jasotako prestakuntza-jarduera txandakatuz.

Betebeharrak:

- **Helburua:** Lan-munduan txertatzen laguntzea enpresa batean ordaindutako lanbide-prestakuntzaren bidez.
- **Kolektiboa:** 16 eta 25 urte bitartekoa, praktikaldiko lan-kontraturako prestakuntzarik gabe.
- **Iraupena:** Gutxienez 1 urte – gehienez 3 urte.
- **Soldata:** Lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) parekoa gutxienez.
- **Prestakuntza Egiatzatua:**
 - Profesionaltasun ziurtagiriak
 - Lanbide Heziketako Titulua
- **Enpresarentzako pizgarria:**
 - **Enpresa kuotak murriztea** %100ean 250 langile baino gutxiago dituzten enpresen kasuan.
- **Prestakuntzaren finantziazioa:** Hobariak enpresako kuotetan **tutoretza kostuak** finantzatzeko eta kontratua mugagabe bilakatuz gero 1500 eta 1800 € bitarteko diru-laguntza.
- **Langilearentzako onurak:**
 - Langilearen kuota %100 murriztea
 - Erabateko gizarte babesa
 - Langabezia
 - Lanbide-prestakuntza

Gehiago jakin nahi izanez gero kontratu mota honi buruz edo jakin-mina baduzu beste kontratu mota batzuei buruz, hemen informazio gehiago aurkituko duzu: <http://bit.ly/1PWi89N>

HELBURU PROFESIONALA



Lan-bilaketa aktiboaren prozesua kontsumo-merkatuan produktu bat saltzearen antzekoa da. Zeure burua enpresa bati eskaintzen ari zarela pentsatu behar duzu. “Salmenta” egiteko, oso garrantzitsua da publizitate-kanpaina on bat egitea. Horretarako, zer ezaugarri dituzun jakin beharko duzu aurrez: norberaren ezagutza.

Zer egin nahi dut?

Lana bilatzen hasi aurretik, autoebaluazio bat egin beharko genuke, bai eta azterketa pertsonal nahiz profesional bat ere, hasierako galderari erantzuten laguntzeko. Gure gaitasunak, abileziak, trebetasunak, prestasuna eta abar ezagutzeko gai izan behar dugu; hartara, geure burua ezagutuko dugu, eta zehaztuko dugu zer onartzeko prest gauden eta zeri egingo geniokeen uko eta zergatik. Lana zer lanpostutan bilatu nahi dugun zehazten lagunduko digu horrek.

Otsaila:

Ikastaroa: Ezagutu zure negozioaren ospe digitala

2016/02/02: Getxo (Bizkaia)

Marketin Mugikorreko Estrategiak zure negozioarentzat

2016/02/04: Getxo (Bizkaia)





Dirulaguntzak

HUTSEN ZUZENKETA, honako agindu honena: «Agindua, 2015eko abenduaren 23koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, enpresen I+G Hazitek programa 2016ko ekitaldirako arautzen eta deitzen duena».

[Buletinerako Sarbidea](#)

AGINDUA, 2015eko abenduaren 23koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, enpresen I+G Hazitek programa 2016ko ekitaldirako arautzen eta deitzen duena. [Buletinerako Sarbidea](#)

Eugenio

Gaur, enpresa bat aurkeztu beharrean, Eugenio ezagutuko dugu. Bera 2014 Tokiko Enplegu Plan bitartez kontratatuta dago, udalerrian zehar dauden lonjak ezagutzeko.

Nolakoa izan da Behargintzan lan egiten hasteko prozesua?

Nire lehen egunak Behargintzan onak, errazak eta lasaiak izan dira.

Tokiko Enplegu Plan honetan dauden egitasmo desberdinetatik, zeinetan ari zara lanean? Zer egingo duzu hilabete hauetan?

Leioa Berpiztu egitasmoan nago, merkataritza gune itxiak dinamizatu eta beren hirigintza hobetzeko, udalerrri barruan, kokaleku eta jarduera berriak sustatze aldera. Horretarako ezinbestekoa da lonja hutsak aurkitzea, udalerriko kale, gune eta auzuneen zerrenda egitea, jabeekin harremanetan jartzea, haiei udaleko egitasmoa azaltzea, eta ados baldin badaude, martxan jartzea. Horixe da, zehazki, nire zeregina.

Nola hartzen ari dira jabeak proiektua? Beraien interesekoa al da? Zeintzuk ziren zure itxaropenak? Betetzen ari dira?

Orain arte, harremanetan egon naizen jabeen harrera ona izan da. Hasieran, zalantzak zalantza, itxaropen handiak neuzkan.

Oraindik oso goiz da itxaropen horiek betetzen diren jakiteko, baina nahiko ondo dabil.

Nola uste duzu hobetuko dutela zure enplegagarritasuna Behargintzan hartzen ari zaren esperientziak eta ezagutzek? Zer ekarpen jasotzen ari zara?

Ziur naiz ondo dakorkidala nire CVrako (niretzat arlo berria delako), eta espero dut etorkizunean ere lagungarria izatea.

Langabezian hainbeste denbora egon ondoren, berriro lan egitea eta lana aurrera ateratzea guztiz aberasgarria da niretzat, baita ikustea erronka berrietara ondo moldatzen naizela ere.



